

## Kaltetutako ekosistemek uste baino denbora gehiago behar dute beren onera etortzeko

Ikerketa berri baten arabera, leheneratze ekologikoak ez du berreskuratzen degradatutako ekosistemen bioaniztasun eta funtzionaltasun osoa. Basque Center for Climate Change-ko ikertzaileek ondorioztatu dute hori, 3.035 lursail aztertuta. Ikusi dute leheneratutako ekosisteme-

tan landareen eta animalien erdiak bakarrik daudela, eta, horrez gain, karbono- eta nitrogeno-zikloak ere ez direla kaltetu aurreko egoerara itzultzen.

Ekosistemen leheneratzeetan, landare-espezieak berreskuratzeaz gain, organismoen arteko interakzioak

ere leheneratu behar dira, eta, kasu askotan, mendeak beharko dira zenbait espezie edo interakzio berreskuratzeke. [Nature Communications aldizkarian argitaratu dute ikerketa.](#) ●



Costa Ricako oihan primarioa. ARG.: BC3, IKERBASQUE.

## Ebolaren aurkako txerto eraginkorra lortu dute, azkenik

Osasunaren Mundu Erakundeak eman du albiste itxaropentsua: rVSV-ZEBOV izeneko txertoak eraginkortasun handia erakutsi du ebolaren aurrean. 2017aren amaierarako txertoaren lizentzia izatea espero da.

Gineako 11.841 pertsonak hartu zuen parte [ikerketan](#), 2015ean. Haietatik 5.837k hartu zuen txertoa, eta txertaketaren ondorengo hamar

egunetan ez zen inolako ebola-kasurik ikusi haien artean. Kontrol-modura jokatuta eta txertoa hartu ez zuten artean, ordea, 23 kasu azaldu ziren.

Eraztun-erako txertaketa erabili zen: ebola-kasu bat diagnostikatzen zutenean, aurreko hiru asteetan paziente horrekin harremanetan egondako pertsona guztiak txertatzen zituzten ikertzaileek.

Horrelako 117 talde edo "eraztun" identifikatu ziren, bakoitza 80 bat pertsonaz osatua. Txertaketa-modu hori baztanga desagerrarazteko erabili zen 70eko hamarkadan, eta, konplexua bada ere, oraingoan ere arrakastatsua azaldu da.

1976an identifikatu zenetik, askotan agertu da ebola birusa Afrikan, baina 2013 eta 2016 arteko agerraldia izan

zen hilgarriena: 11.300 heriotza baino gehiago eragin zituen Ginean; hain zuzen ere, txerto berria probatu den eremuan. OMEko arduradunek ziurtatu dute hemendik aurrerako agerraldietan prest egongo direla gaixotasunari aurre hartzeko. Larrialdietarako 300.000 dosi prest izateko konpromisoa hartu du MERK enpresa farmazeutikoak. ●